

ESKORIATZAKO UDALA

Gizarte zerbitzuetan diharduten elkarteentzako diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak

1. Helburua

Beraien jarduera gizarte zerbitzuen alorrean egiten duten elkarteei funtzionamendu gastuetarako zein proiektuak egiteko diru laguntzak, norgehiagoka erregimenean, ematea da oinarri hauen helburua.

2. Erakunde onuradunak

Diru laguntza eskatu ahal izango dute legez eraturako eta Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroan inskribaturako irabazi-asmorik gabeko erakundeek, gizarte zerbitzu jarduerak Eskoriatzan garatu edota betetzen badituzte eta jarduera horiek deialdi honetako helburuarekin bat baldin badatoz

Gainera, beraien jarduera gizarte zerbitzuetako alorrean garatu beharko dute eta helburutzat izan beharko dute parte hartzea bultzatzea, gizarte boluntarioria eta herritarren arteko elkartasuna sustatzea eta honako talde baten edo batzuetan integratzeko edo gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonen arreta egitea: haurrak, gazteak, emakumeak, ezinduek, hirugarren adinekoak, gutxiengo etnikoak, preso ohiak, mendekotasunak dituztenak, pasadizoko jendea eta arrisku sozialean egoteagatik gizarte zerbitzuen laguntza behar duen edozein talde.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko dituzte.

Udal honek aurreko urteetan emandako diru laguntza behar bezala justifikatuta izan beharko dute.

3. Diru laguntzak jaso ditzaketan jarduerak

Diru laguntzak honako hauek finantzatzeko izango dira:

- a) Gizarte zerbitzuetako arloan jarduera zehatzak garatzea, esaterako, honako hauek: hitzaldiak, zabalkunde kanpainak, prestakuntza ikastaroak antolatzea, biztanleriaren zenbati sektoreen aisialdia eta asoziazionismoa sustatzea.
- b) Talde berezien gizarteratzera zuzendutako jarduera sustatzeko jarduerak edota ekintzak.
- c) Taldeei arreta eskaintzea gizarte zerbitzuen eta osasun arloan
- d) Elkarte eskatzaileen mantenimendua: telefonoa, faxa, bulego materiala, ekipamendu txikia eta abar.

4. Eskerak

4.1.- Epea:

Eskerak aurkezteko epea HILABETEKOA izango da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epe amaiera.



Eskaerak astelehenetik ostiralera, jendearentzako ordutegian, aurkeztu ahal izango dira Udal Erregistro Orokorrean edo, telematikoki, HERRITARREN ATARIAN.

Eskatzaileak aurkeztutako proiektuaren dokumentazioa osatu gabea edo urria dela egiaztatuko balu Udalak, 10 egun naturaleko epea emango dio eskatzaileari akats edo hutsegite hori konpontzeko, eta epe hori bukatuta, zuzenketa egin ez badu, eskaria besterik gabe artxibatu eta dokumentazioa eskatzaileari itzuliko zaio.

4.2.- Aurkeztu beharreko agiriak:

Elkarte bakoitzak paperean eta formatu digitalean aurkeztu beharko du eskaera:

- a) Diru laguntza eskaera, eredu normalizatuaren arabera (I Eranskina).
- b) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria. Ziurtagiri horretan helbide sozialari buruzko informazioa agertu beharko da.
- c) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- d) Erakundeak Gizarte Segurantzarekin eta Foru Aldundiarekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Horrela nahi izanez gero, elkartearen datu horiek jasotzeko baimena eman diezaioke elkarteak Eskoriatzako Udalari (II. eranskina).
- e) Banku edo aurrezki entitate batek emandako agiria, erakunde eskatzailea kontu korrante baten titularra dela ziurtatuko duena (II Eranskina).

Elkarteek zehaztu egin beharko dute deialdian aurkezten dituzten ekintzek beste erakunde batzuetako diru laguntzarik jaso duten, eta, hala bada, horien zerranda aurkeztu beharko dute, zenbatekoa eta helburua azalduz, diru laguntzak ordaintzean bikoiztasunik izan ez dadin eta baliabideak ahalik eta modurik egokienean esleitu daitezten.

5. artikulua.- Balorazio irizpideak

Eskatutako beharkizunak betetzen dituzten eskaeren artean diru laguntzen banaketa egiteko honela jokatu da:

- Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna. 10 puntura arte.
 - Eskoriatzako onuradun kopurua. 40 puntura arte.
 - Zailtasun sozialak dituzten herritarrei hobekuntza pertsonala, familiarra edo beste mota batekoa lortzen laguntzeko elkarteak eskaini ditzakeen zerbitzu eta ekintzak kontuan hartuko dira. 15 puntura arte.
 - Genero ikuspegia txertatzea edo emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzea. 5 puntura arte.
 - Jarduerak Eskoriatzan egitea. 25 puntura arte.
- Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea. 25 puntura arte.

6. artikulua.- Aurrekontua

Deialdian zehaztuko da aurrekontu zuzkidura, eta ekitaldi bakoitzerako onartutako aurrekontuan berariaz sartuta egon beharko da.



7. Artikulua. Proposamena egitea eta erabakitzea

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak eta, horrelakorik izanez gero, txosten teknikoak; eta diru laguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari.

8. artikulua.- Erakunde eskatzaileari jakinaraztea

Eskariak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita hilabete eta erdiko epean jakinaraziko zaie eskatzaileei organo eskudunak hartutako erabakia. Epea amaitutakoan Udalak ez balu berariaz inolako erabakirik hartu eskaeraren bati buruz, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

9. artikulua. Justifikazioa

Araudi honek dioenaren arabera emandako diru laguntzak jasotzeko, ezinbestekoa izango da diruz lagundutako aktibitateak edo jarduerak eginak izatea eta Udaletxean ondoko agiriak aurkeztea:

- a) Diruz lagundutako proiektuari buruzko memoria (IV. eranskina).
- b) Eskatutako beste diru laguntzen aitortpena (IV. eranskina).
- c) Diruz lagundutako proiektua dela-eta izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeak idazkariak ziurtatuta egon beharko da. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- d) Proiektuak sortutako gastuen zerrenda sailkatua (IV. eranskinetik JUSTIFIKATZEKO KONTUA) honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- e) Gastu horiek honela justifikatuko dira:

Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta, edo horien fotokopia konpultsatuak. Fakturak udal erregistro orokorrean konpultsatu ahal izango dira. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako diru laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

Justifikatuko diren gastu guztiek diru laguntza jasotako urteko data izan behar dute eta diruz lagundutako proiektuarekin bat etorri behar dira.

Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- f) Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.
- g) Diru laguntzaren onuradunak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.



Langileen gastuak justifikatzeko:

Jarduerarekin lotutako langile guztien zerrenda, erakundeko ordezkariak ziurtatua; bertan adierazi beharko da bakoitzak egindako lan edo funtzioak, horretan emandako denbora eta kostea.

Kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren buletinak (TC/1 eta TC/2 dokumentuak) edo erregelamenduz horiek ordezkatzeko dituztenak eta PFEZ kontzeptuagatik egindako atxikpenak Ogasunean sartu izanaren dokumentuak.

Kontzepturen batekin zalantzarik sortuz gero, gastu horri buruzko zehaztasun gehiago aurkeztea eskatu ahal izango zaio elkarteari.

Justifikatzeko epeari dagokionez, eskatutako dokumentazioa deialdiko urteko azaroaren 29a baino lehen aurkeztu beharko da.

10. artikulua. Ordaintzeko epea eta modua

Diru laguntza bi alditan ordainduko da:

- Lehenengo ordainketa, % 60a, gehienez ere hilabeteko epean diru laguntza emateko erabakia hartzen denetik kontaktzen hasita.
- Bigarren ordainketa, % 40a, txostena aurkeztu eta proiektua diru laguntzaren deialdiko azaroaren 29a baino lehen % 100ean egin dela dokumentu bidez justifikatu ondoren.

11. artikulua.- Diru laguntzaren erregularizazioa

Benetan izandako gastu eta diru sarrerak ikusita, emandako diru laguntza zuzenduko da diru laguntzaren bigarren ordainketa egin behar denean.

Diru laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen baldin badira edo helburu berarekin beste erakunde batzuk emandako diru laguntzarik jasoz gero, horiek diru laguntza emateko erabakia aldatzea ekar dezakete bigarren ordainketa egiterakoan.

12. artikulua. Euskararen erabilera

Diru laguntzaren helburu den jarduera, proiektu edo programari buruz herritarrei zuzendutako komunikazioetan ondorengoak izango dira kontuan:

— Idatzizko komunikazioak (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka, ohar...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Ele bitan idatziz gero, euskarari emango zaio lehentasuna beti. Testuak zuzen idatzita daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da.

— Ahozko komunikazioak ere (hitzaldiak, zabalkunde kanpainak prestakuntza ikastaroak...) euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dira, eta betiere, euskarari emango zaio lehentasuna erdarakoaren aurretik azalduz.

— Edozein kasutan, 16 urtetik beherakoei zuzendutako jarduera eta ahozko zein idatzizko komunikazio guztiak (hitzaldi, ikastaro, idatzi, etab.), salbuespenak salbuespen, euskara hutsean izango dira.



13. artikulua.- Betebeharrak ez betetzea

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren bat ez betetzeak, emandako diru laguntza berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, diru laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

14. artikulua.- Bateragarritasuna beste diru laguntza batzuekin

Udalak emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, diru laguntza ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

15. artikulua.- Diru laguntza bertan behera uztea edo baliogabetzea

Diru laguntza berraztertzeke eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da diru laguntza jasotzea eskatutako baldintzak bete gabe.

16. artikulua.- Interpretazioa

Oinarriak interpretatzerakoan eta garatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak erabakiko ditu.

17. artikulua.- Araudi osagarria

Oinarri hauetan berariaz ezarrita ez dagoenetarako, estatuko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritakoa zein diru laguntza arloan indarrean dagoen gainerako legedia aplikatuko da.